

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5268

1520/2024 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Ander Alberdi Arbelaiz jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko burua (Ospitaleko espezialitateetako diziplina anitzeko arreta-arloa), aldi baterako, lau urte luzagarri.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentearen apirilaren 5eko 625/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko burua (Ospitaleko espezialitateetako diziplina anitzeko arreta-arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehia-keta-sistemaren bidez (2024ko apirilaren 24ko EHAA, 81. zk. eta 2024ko maiatzaren 1eko BOE, 106. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Ander Alberdi Arbelaiz jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko buru (Ospitaleko espezialitateetako diziplina anitzeko arreta-arloa).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ander Alberdi Arbelaiz jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko buru (Ospitaleko espezialitateetako diziplina anitzeko arreta-arloa) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2024ko urriaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ez baldin bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendari-tzari Ebazpen honen berri ematea.

2024ko azaroaren 18a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia / San Sebastián, 2024ko urriaren 25a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.